

## Hemeroteka: Txema Auzmendiren hitzaldia Durangon

Igorlea: BAIETZ Fundazioa

Estilo baten alde Elizarekin lotutako irratien etorkizunaz galderak eta proposamenak egin ditu Txema Auzmendik 'Eliza, euskara eta irratia' hitzaldian

BERRIA 2003.12.07

Elizarekin zerikusi zuzena eta euskararekin lotura duten Euskal Herriko irratien inguruko hitzaldia eskaini zuen atzo Durangon Txema Auzmendi (Ordizia, 1948) Donostiako Herri Irratiko zuzendariorde eta Euskaldunon Egunkaria-ko Administrazio Kontseiluko idazkari izandakoak; haien egoeraren ikuspegi orokorra eman, eta gaiaren inguruan dituen hainbat galdera eta kezka plazaratu zituen.

50eko hamarkadan hasi ziren sortzen Elizak babestutako elizak Euskal Herrian. Segura Irratia izan zen aitzindaria, 1956an. «Francoren garaia zen, eta euskararen presentziak, eta edozein motatako kritikaren agerpenak ere bai, ara-

zoak sortzen zizkieten irratia guztiei». «Elizak irratien bidez euskarari eta euskaldunei eusten asmatu zuen», Auzmendiren ustez, «garai hartako mundu ikuskerarekin bat eginez. Ez da ahaztu behar Vaticanoko II. Kontzilioaren aurreko garaia zela». Otoitzaldiak, eukaristiak, errosarioak, mezak, bederatzuurrenak eta gisakoak oso garrantzitsuak ziren euskara bultzatu nahi zuten irratien eskaintzetan. «Baina beste era bateko zerbitzu batzuk eskaintzen ere saiatu ziren: bertso mundua hurbildu zioten entzule askori, baita kantu asko ere. Poliki-poliki irabazten joan zen borroka bat izan zen: irratia bat ixten zuten, herriaren laguntzarekin berriro ireki... Segura, Arrate, Herri Irratia, Bizkaia Irratia eta beste, oso finak izan dira guztiak alde horretatik». «Elizak euskarari eman dion garrantzia aldatzen joan da», Auzmendiren ustez, "eta zerbitzu erlijiosoetatik aparte bestelako zerbitzuek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute". Auzmendi batek baino gehiagok kontatu dio, esaterako, pilota partida baten irratia bidezko euskarazko kontaketa etxean entzuteak sekulako zi-

rrara eragin ziola, hain zen orduan kontu berri eta ezohikoa gaur egun guztiz arrunt jotzen duguna. «Urrats garrantzitsuak egin ziren», esan zuen Auzmendik, «eta Elizaren babesa laguntza handia izan zen frankismoaren erasoak horren gogorak izan ez zitezten, nahiz eta hala ere frankismoak ez zion irratien aurka jotzeari uko egin».

Eliz irratien sarerik ezaz

«Euskal Herriko Eliza katolikoak ez dauka irratia sare bat Hego Euskal Herrian», esan zuen Auzmendik, orainari eta geroari buruzko kezka eta galderak planteatzeko tenorea heldu zenean, «eta are gutxiago Euskal Herri osoa hartuko duenik».

Elizak gero eta indar gutxiago izatearen ondorio izan liteke, Auzmendiren ustez, sare hori sortzeko ezintasunaren iturburua. «Nire ikuspuntutik, ona da boterea galtzea eta makalagoak izatea. Horregatik, sarea ez osatzearen arrazoia hori bada, ez dut horregatik negarrik egingo». Zerbitzu erlijiosoaren eskaintzaren inguruan dituen kezka agertu zituen ondoren

hizlariak. «Badirudi horiek markatzen dutela Elizaren irratia dena, edo izan nahi lukeena. Baina eukaristia ez da, nire ustez, irratiz entzutekoa, bizi izatekoa baizik, kristau elkartearekin parte hartzekoa... Eskaini den, eskaintzen den eta beharbada eskaini behar den zerbitzua da. Baina ebanjelioak dituen balioak zuzentasuna, bakea, egia, maitasuna, errukia... dira batez ere gure irratietan azaldu behar dutenak». «Saio guztietan hori eman behar genuke guk», jarraitu zuen Auzmendik. «Kontua ez da Eliza eta bere balioak aipatzea saio bakoitzean, estilo bat izatea baizik, balio horiekin lotutako egiteko modu bat». Horretarako dauden zailtasunak agerian geratu ziren entzuleen ohar eta galderen tartean, baina xede gisa planteatutakoak entzuleen adostasuna izan zuen.

**Hemeroteka: Iñaki Uriaskatzeko eskatu du berriro ere MIDASeko zuzendaritzak**

Igorlea: BAIETZ Fundazioa

Europako hizkuntza minorizatueta argitaratzen diren egunkarietako

elkartekak bilera egin du asteburu honetan Vienan.

BERRIA 2003.12.02

Otsailean Euskaldunon Egunkaria itxi eta gero, eta martxoan eta maiatzean izaniko batzar nagusian egin zuen aldarrikapen bera egin du asteburu honetan MIDASek: Inaki Uri Egunkaria-kontseilari ordezkaria lehenbailehen aske uzteko eskatzea.

Europako hizkuntza minorizatueta argitaratzen diren egunkarietako elkarteko zuzendaritzak gogor kritikatu du, berriro ere, Egunkaria-ren kontra duela ia hamar hilabete hartutako erabakia eta Inaki Uriak espetxean segitzea. Egunkaria MIDASeko zuzendaritzako kidea zen, eta Uri hedabidearen ordezkaria bertan. MIDASek Europako 28 egunkari elkartzen ditu. Vienako bilera Martxelo Otamendi berriko zuzendaria joatekoa zen, han euskarazko egunkari bakarra ordezkatzeko, baina epaileak ez dio joateko baime nik eman. Haren orde z, Jose Mari Pastor izan da Austriako hiriburuan.

Egunkaria- rekiko eta Uri-

arenganako elkartasunaz gain, euskal kazetaritzari dagozkion beste erabaki batzuk hartu ditu MIDASek. 2004ko otsailerako MIDASek mintegi bat antolatu du Euskal Herrian. Jardunaldi horietan elkarteko kideak diren egunkarietako bost kazetarik parte hartuko dute. Mintegia otsailaren 16a eta 21a bitartean egingo da berriaren egoitza nagusian, Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkean. Bost egun horietan atzerriko kazetariak berriako langileekin batera eguneroko agenda informatiboa landuko dute, eta Euskal Herriko egoera politiko, sozial eta kulturala ezagutzeko aukera izango dute. Horretarako kultura, gizarte eta politika arloko ordezkariekin mintzatuko dira.

Batzar nagusia Euskal Herrian

MIDASek, bestalde, Euskal Herrian egingo du 2004. urteko batzar nagusia. Bilera hori maiatzean izango da. Hori egiteko erabakia aurtengo udaberrian egin zen batzar nagusian hartu zuten MIDASeko kideek, Euskaldunon Egunkariarekiko elkartasunez.

Halaber, Vienako bileran

bi kazetaritza sariren berri ere eman dute: MIDAS kazetaritza saria eta Otto von Habsburg kazetaritza saria, biak Europako kultur aniztasuna eta gutxiengoen esku-bideak hedatu eta babes-teko xedez egindako lanak nabarmentzeko. MIDAS kazetaritza sarian elkarteko kideak diren egunkarietako kazetari-ek har dezakete parte. Europako batasun prozesuan estatuen babesik gabe dauden herri eta gutxiengoen ezaugarri eta berezitasunei buruz 2003. urtean idatzitako lana sarituko da. Irabazleak 1.000 euro bereganatuko ditu. Otto von Habsburg kazetaritza saria, bestalde, Europako egunkari guztietako kazetari-iek irekita dago. Sari horren helburua betiere diferentzia kulturalak eta etnikoak hobeto ulertze-ko argitaratu diren artiku-luak nabarmentzea da. Saria 2.000 eurokoa izango da. Bi sariak MIDASek maiatzean Euskal Herrian egingo duen batzar nagusian banatuko dira.

### **"Gora Euskal Herria" izeneko manifestaldiaren bideoak.**

Euskal Herria Indymedian eskuragarri dituzue.

avi formatoan daude eta bakoitza 5'5 Mb dira.

Bestetik Gara.net-en manifestazioaren argazki sorta prestatu dute hemen

Jeisteko bisitatu datozen URLak hemen eta hemen sakatzen.

### **Hemeroteka: Txema Auzmendiren hitzaldia Durangon**

Igorlea: BAIETZ Fundazioa

Estilo baten alde Elizarekin lotutako irratien etorkizunaz galderak eta proposamenak egin ditu Txema Auzmendik 'Eliza, euskara eta irratia' hitzaldian

BERRIA 2003.12.07

Elizarekin zerikusi zuzena eta euskararekin lotura duten Euskal Herriko irratien inguruko hitzaldia eskaini zuen atzo Durangon Txema Auzmendi (Ordizia, 1948) Donostiako Herri Irratiko zuzendariorde eta Euskaldunon Egunkaria-ko Administrazio Kontseiluko idazkari izandakoak; haien egoeraren ikuspegi orokorra eman, eta gaiaren inguruan dituen hainbat galdera eta kezka

plazaratu zituen.

50eko hamarkadan hasi ziren sortzen Elizak babestutako elizak Euskal Herrian. Segura Irratia izan zen aitzindaria, 1956an. «Francoren garaia zen, eta euskararen presentziak, eta edozein motatako kritikaren agerpenak ere bai, arazoak sortzen zizkieten irradi guztiei». «Elizak irratien bidez euskarari eta euskaldunei eusten asmatu zuen», Auzmendiren ustez, «garai hartako mundu ikuskerarekin bat eginez. Ez da ahaztu behar Vaticanoko II. Kontzilioaren aurreko garaia zela». Otoitzaldiak, eukaristiak, errosarioak, mezak, bederatziurrenak eta gisakoak oso garrantzitsuak ziren euskara bultzatu nahi zuten irratien eskaintzetan. «Baina beste era bateko zerbitzu batzuk eskaintzen ere saiatu ziren: bertso mundua hurbildu zioten entzule askori, baita kantatu asko ere. Poliki-poliki irabazten joan zen borroka bat izan zen: irradi bat ixten zuten, herriaren laguntzarekin berriro ireki... Segura, Arrate, Herri Irratia, Bizkaia Irratia eta beste, oso finak izan dira guztiak alde horretatik». «Elizak euskarari eman dion garrantzia al-

datzen joan da», Azumendiren ustez, Òeta zerbitzu erlijiosoetatik aparteko bestelako zerbitzuek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute. Auzmendiri batek baino gehiagok kontatu dio, esaterako, pilota partida baten irrati bidezko euskarazko kontaketa etxean entzuteak sekulako zirrara eragin ziola, hain zen orduan kontu berri eta ezohikoa gaur egun guztiz arrunt jotzen duguna. «Urrats garrantzitsuak egin ziren», esan zuen Auzmendik, «eta Elizaren babesa laguntza handia izan zen frankismoaren erasoak horren gogorrak izan ez zitezten, nahiz eta hala ere frankismoak ez zion irratien aurka jotzeari uko egiten».

Eliz irratien sarerik ezaz

«Euskal Herriko Eliza katolikoak ez dauka irrati sare bat Hego Euskal Herrian», esan zuen Auzmendik, orainari eta geroari buruzko kezka eta galderak planteatzeko tenorea heldu zenean, «eta are gutxiago Euskal Herri osoa hartuko duenik».

Elizak gero eta indar gutxiago izatearen ondorio izan liteke, Auzmendiren

ustez, sare hori sortzeko ezintasunaren iturburu. «Nire ikuspuntutik, ona da boterea galtzea eta makalagoak izatea. Horregatik, sarea ez osatzearen arrazoa hori bada, ez dut horregatik negarririk egingo». Zerbitzu erlijiosoaren eskaintzaren inguruan dituen kezka agertu zituen ondoren hizlariak. «Badirudi horiek markatzen dutela Elizaren irratia dena, edo izan nahi lukeena. Baina eukaristia ez da, nire ustez, irratiz entzutekoa, bizi izatekoa baizik, kristau elkartearekin parte hartzekoa... Eskaini den, eskaintzen den eta beharbada eskaini behar den zerbitzua da. Baina ebanjelioak dituen balioak zuzentasuna, bakea, egia, maitasuna, errukia... dira batez ere gure irratietan azaldu behar dutenak». «Saio guztietan hori eman behar genuke guk», jarraitu zuen Auzmendik. «Kontua ez da Eliza eta bere balioak aipatzea saio bakoitzean, estilo bat izatea baizik, balio horiekin lotutako egiteko modu bat». Horretarako dauden zailtasunak agerian geratu ziren entzuleen ohar eta galderen tartean, baina xede gisa planteatutakoak entzuleen adostasuna izan zuen.

## **Hemeroteka: Etxeberria abokatua atxilotu eta inkomunikatu du Del Olmok**

Igorlea: BAIETZ Fundazioa

Inkomunikatuta deklaratu zuten bese zortziek epailearen aurrean, 13:30ean hasi eta goizaldera arte

Atzo iluntzeko 21:45etan Enekoitz Etxeberria Egunkaria S.A. ko lege ordezkaria eta Amando Hernandez atxilotuaren abokatua atxilotuta eta inkomunikatuta zegoela jakinarazi zion eta Auzitegi Nazionaleko ziegetan sartu zuen Juan Del Olmo epaileak. Etxeberriarekin batera Auzitegi Nazionalaren sarreran zegoen Jose Mari Elosua abokatua. Honek ikusi zuen nola epailea bere bulegotik jaitsi eta Etxeberriarenganahurbildu zen zerbait esatera. Gero, epaileak Egunkaria S.A. ko abokatua berarekin eramaten zuela ikusi zuen. Handik denbora batera, idazkari judicialak esan zion Elosuari Etxeberria atxiloturik eta inkomunikaturik zegoela.

BERRIA 2003.10.21 - e. goenaga / I. Murua uria - MADRIL

Elosuaren iritziz, normalena, Etxeberriak gainerako atxilotuekin batera deklaratzeko da. Hala ere, legez, bost egun egon daiteke egoera horretan. Idazkari judizialak atzo jakinarazi zenez, ordea, gaur deklaratu du, gainerako ondotik. Bestalde, azken atxilotoketa honek polizia operazioak zabalik jarraitzen duela esan nahi du Elosuaren irudiko.

#### «Neurrigabekeria»

Jose Mari Elosuaren iritziz, atxilotoketa «neurrigabekeria, desproporzio ikaragarria» da. «Zortzi hilabetez bera [Etxeberria] aritu da etengabe Auzitegi Nazionalaren eskera guztiei bide ematen. Zortzi hilabete horietan bezala, gaur [atzo] hemen, Madrilén, zegoen, epailearen eskura. Eta bihar [gaur] ere hemen egoteko zen». Ondorioz, haren kontrako dilijentziaren bat egonez gero, normalena haren kontrako ekinbideak gaurko uztea litzatekeela gaineratu zuen Elosuak.

Berria-ko zuzendari Martxelo Otamendik ondoko azpimarratu zuen: «Bapatean, Egunkaria lege ordezkaririk gabe gelditu da. Eskandaluaren

gainean beste eskandalu bat da hau. Atxilotuen inkomunikazio egoerarekin batera, indefentsio egoera areagotzen du abokatuaren atxilotoketa».

Bestalde, Martin Ugalde Kultur Parkearen aurkako operazioan atxilotutako zortzi euskal herritarren egoeraren berririk gabe jarraitzen zuten haien abokatuek eta senideek bart gauean Madrilén, guztiei deklarazioa inkomunikazio egoeran hartzea erabaki baitzuen Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalako 6. instrukzio epaileak. Zortzi atxilotuak atzo eguerditik aurrera Auzitegi Nazionalera eramaten hasi ziren arte Guardia Zibilarren esku egon ziren ostegunetik, inkomunikatuta.

Juan del Olmo epailea 13:30etatik aurrera hasi zen atxilotuei deklarazioa hartzen. Aurrenekoa, epaitegiko iturri ez ofizialek adierazi zutenenez, Amando Hernandez tolosarra izan zen, Tolosaldeko Komunikabideak enpresako kide izateagatik atxilotua. Bazkaltzeko etenaldia egin ondoren, 16:30etatik aurrera Mikel Azkune azpeitiarra pasa zen epailea-

ren aurretik, Ardatz publikitate enpresan langilea. Haren ondotik Mikel Arrizabalaga Buruntzapeko kudeatzaileari hartu zion deklarazioa epaileak, eta 20:00ak jota bukatu zuen.

20:30etan berririk ez zegoen gainerako atxilotuei buruz. Izan ere, Angel Diez, Joanmari Larrarte, Xabier Legarra, Mikel Sorozabal, Joxe Mari Sors eta Mikel Sorozabal ordurako Auzitegi Nazionalera ekarri zituztenik ere ez zen jakina.

Auzitegi iturri batzuren arabera, oso litekeena zen otsaileko operazioaren ondoren egin zuen bezala, epaileak gauean etenaldirik ez egitea, goizaldean deklarazioak hartzen jarraitzea eta atxilotuei buruzko erabakiak auto bakarrean gaur goizean ematea.

Atxilotuen senide, lagun eta lankideen artean berrogeita hamar lagun inguru izan ziren atzo Madrilén egun osoan. Zortzi atxilotuen batera berririk ez jasotzeaz gain, Espainiako Poliziak identifikatu zituen.

This text has been copied from the "Euskal Herriaren Ataria" with the purpose to demonstrate Basque hyphenation only. The text was processed using \*TALO's formatter software.

6 January 2004